DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!

205 zenbakia
2019 iraila

KINKA LARRIAN! Info+ 5. or

BERBETAN: ATXARTE SALVADOR ETA ROBERTO NOVAL 11/13 SUMARIOAN EPAITUAK

ERREPORTAJEA: ATE-ATEAN BARKUA: BIDAIA KRONIKAK

TOKIKOM

prest205.indd 1 24/09/19 13:26

199-200-201-202-203-204-

Gure babesleak

berbaizu euskaraelkartea

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

intxixu ikastola

etxantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

S.D. DEUSTO

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

erraldoien ondalan konpartsa

bekoerri kultur elkartea

ABRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

Etxerat

DEFENDA DEZAGUN!

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

LABORAL kutxa

PARE HAUTSI DIZAKAN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASANBLADA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

prest205.indd 2 24/09/19 13:27

205 zenbakia
2019ko iraila

aurkibidea

Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña	**Iritzia**	4
PREST! kika larrian	**PREST!**	5

e **erreportajea**
Arrauna

Arraunaren olinpora sartu ezinda, atarian geratu dira Deustu Arraun Taldeko mutilak. Historikoa izan da euren denboraldia eta historikoa urtea klubarentzat. — **6**

Udalekuetan nonahi	**Udalekuak**	10
Francesc Macià eta Espainiako Armada aurrez aurre Deustuan (II)	**Behin batean**	12
Jose Moreno 1936ko gerrako azken gudari deustuarra zendu da	**Artikulua**	14

b **berbetan**
ATXARTE SALVADOR ETA ROBERTO NOVALekin

Naia, Eukene, Roberto eta Atxarte herrian daude dagoeneko. Madrilen akordioa sinatu eta bi egunetara elkartu gara azken biekin. Zapore gazi-gozoa dute. Kartzelan sartuko ez dituzten arren, zigortuak izan direlako. — **16**

Olabegako zamalekuak	**Irudiak berbetan**	21

BERTSOLARITZA Aferak, bertsolari gazteentzako plaza

BIDAIA KRONIKAK Chiapas eta Kuba

PINTXODROMOA El Pinolero

KULTUR TXOTX Gorka Zozaia eta Enare Muniategi Etxabe

harkua bete herba — **24**

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Helene Sarasola Isazelaia
Ikaslea

Trikitixa euskaraz eta gimnasia erritmikoa espainolez!

Musika eskolara joan, dantza modernoa egin, igeriketa ikastaroan parte hartu eta beste asko izango dira Deustualdeko umeek eta gazteek egingo dituzten ekintzak eskolatik kanpo, hasi berri den ikasturtean.

Jarduerak gurasoek aukeratzen dituzte, noski, seme-alabekin batera. Baina, hizkuntza eredua? Aukerarik izatekotan, nork aukeratzen du? Esan gabe doa ekintza gehientsuenak espainolez izaten direla, nahiz eta asko Bilboko Udalak kudeatuak izan.

Ekintza asko oraindik ezin ditugu ezta irudikatu ere egin euskaraz. Gure irudimenean ez dira existitu ere egiten euskaraz. Euskal dantzak, bertsolaritza, panderoa edota eskola kirol batzuk dira umeek euskaraz, normaltasunez, egin ahal dituzten jarduerak. Gainontzekoak, pianoa edota igeriketa, espainolez. Salbuespenak salbuespen, noski.

Deustualdean ahalegin bikaina egiten dute aisialdi taldeek euskaraz normaltasunez bizitzeko aukera eskainiz umeei; eta ikusi besterik ez dago zer ondo erantzuten duten haur gehienek inolako eragozpenik gabe, zein hizkuntzatan ari diren konturatu gabe.

Halaber, ez da nahikoa. Aisialdi esparru osoaren hizkuntza eredua birplanteatzen ez den bitartean, gureak egin du. Datozen urteetan ere entzun beharko dugu umeen eta gazteen artean euskararen erabilerak ez duela gora egiten. Noiz arte horrela? Zaharrak berri, zoritxarrez!

Iñigo Martinez Peña
Filosofia irakaslea

Hala eta guztiz ere

Zoriontasuna eta zoriontasun falta ez daude maila berean, ez dira txanpon beraren bi aldeak. Uda honetan, esperientzia horren berri izan dut Ingalaterran, ezbehar batek ospitalera eraman ninduenean. Turismo berezia; kanpo zein barne bidaia egiteko aukera izan dut, morfina eta guzti. Eta hantxe jaso dut zoriontasunaren simetria falta horren berri existentziala, ez da kontu intelektual soila izan. Ebakuntza egin zidaten eta galdutako egunerokotasunaren distira bizi-bizi sentitu nuen orduan, ospitaleko ohean. Desira apalak baina ohetik begiratuta izugarri atseginak: paseotxo bat ematea, kafetxo bat partekatzea, mugitu ahal izatea. Ez naiz zoriontasun harro, maiuskulu eta biribilaz ari: zoriontasunaren tiraniarik ez, mesedez! Ideologia horrek apaiz hipermoderno berri dezente dauzka, *coach*en eta publizisten diskurtsoetan ahotsa hartuta. Bizitza topera aprobetxatzeko presio urduria baino ez dute sortzen horiek. Ni eguneroko poztasun txikiez ari naiz: espero gabeko topo egite hori, lagunarekin ardoa eta hitzen zaporearen nahaste hura, burura datorkigun ahaztutako melodia, ezusteko paisaia polita, etxera bueltatzea egun luze baten ondoren... Detaile horiek dira —misteriorik gabe, sakontasun berezirik gabe —bizipoz apal eta atseginaren seinale. Gehienetan ustekabean ageri dira. Munduan, zoritxarrez, kontu politiko gogor gehiegi, miseria asko eta desastre mordoa daude. Ados. Gizakion historia bera begiratzea besterik ez dago. Baina poztasun txikiak mahai gainean jarri nahi ditut gaur. Egon dira eta egongo dira. Bizitzaren zertzelada bereziekin topo egingo dugu, *hala eta guztiz ere*, egunerokotasunetik aldendu gabe.

Prest ! EGOERAK HOBERA EZ ETA ALARMA PIZTUTA ORAINDIK

Ekainean piztu genituen alarma guztiak deustuarrak PREST! aldizkariaren egoera larriaz ohartarazteko.

Jakina da gure egoera ekonomikoa prekarioa dela aspalditik, urtez urte dirulaguntza eta publizitate sarrerak apaldu direlako, inprenta eta banaketa gastuak handitu diren bitartean.

Azken hilabeteotan, gainera, egoera oraindik eta okerragoa da. Aurtengo dirulaguntza guztiak (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala) atzeratu egin dira, eta **jaso arte diru gabe gaude**. Printzipioz, urtea amaitu aurretik iritsi beharko lirateke, baina ez daukagu inolako bermerik.

Likidezia arazoari aurre egiteko hainbat neurri hartu genituen uda hasieran, tartean babesle kanpaina aurreratzea eta irakurleei maileguak eskatzea. Deustuarren erantzuna zabala izan da eta **esker oneko hitzak baino ez ditugu**, zuei esker gaur arte proiektuari eusteko adina baliabide lortu dugulako. Hala ere, arazoa laster konpontzetik urrun, oso litekeena da urte amaiera arte luzatzea, eta horregatik **kanpainarekin jarraitu behar dugu nahitaez**.

Irakurle guztion babesa ezinbestekoa da, proiektua egonkortu eta indartu ahal izateko. PREST! etxean jasotzen duzuenon 14tik batek baino ez du aldizkaria babesten. Dirulaguntza eta publizitate iturrien guztiz mendekoak gara, eta **edozein gorabeherak proiektua kolokan jartzen du**.

Egoera oso larria dela-eta, irakurleei berriz eskatu behar dizuegu hilero jasotzen duzuen aldizkaria diruz babestea. Bestela, nekez aterako dugu aurrera PREST! duintasunez, produktuaren, langileen eta lantaldearen kalterako.

Gaur egungo egoera hil ala bizikoa da eta larritasun honen aurrean zuen guztion ahalegina eskatzen dizuegu beste behin ere, hau da, urtean 25 euroko kuota ordaintzea. Guztion ekarpen xumea funtsezkoa da PREST! argitaratzen jarraitzeko. Zuek barik ez dago PREST! eta horregatik zuengana jotzen dugu atzera ere laguntza eske.

Ekarpena egiteko, idatzi **prestharpide@gmail.com** helbidera edo deitu **944 471 042** telefono zenbakira.

Aldez aurretik zure babesa eskertu nahi dizugu irakurlearen zaren aldetik zuk ere PREST! egiten duzulako.

PREST! aldizkariko lantaldea

ATE-ATEAN

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Deustu Arraun Taldea

Arraunaren olinpora sartu ezinda, atarian geratu dira Deustu Arraun Taldeko mutilak. Historikoa izan da euren denboraldia eta historikoa urtea klubarentzat.

Garaipenik gabe triste, baina, era berean, egindako lanarekin pozik dago Deustu Arraun Taldeko jende-modua. Horregatik luzatu zuten bazkalostea irailaren 15ean. Gustura jan eta edan zuten, berandu arte. Azkenak etxeratzen "zaharrenak" izan ziren, Aitor Mojas klubeko presidenteak aitortu duenez: "Jon Elortegi entrenatzailea eta biok izan ginen azkenak". Asko zuten ospatzeko, "denboraldi historikoa" horren arrazoi. Deustu Arraun Taldea inoiz ez baita hain gora iritsi. Izan ere, arraunaren olinpoko ateak urratu ditu.

Lehen maila inoiz baino hurbilago izan dute *Tomatera*-ko arraunlariek. Oso hurbil. Igoerako *playoff*-ean sailkatu ziren unetik, joan den abuztuan, buru-belarri ekin diote irailaren 14 eta 15eko erronka prestatzeari. Eusko Label ligara, arraunaren goi mailara iristeko proba prestatzeari. Ez dute lortu, baina ez dira urruti ibili. Lehen hiru luzeetan, gainerako traineruen aurretik aritu zen *Tomatera* Bermeoko estropadan. Horregatik heldu ziren "bizirik eta itxaropentsu" Portugaletera. Mojasen hitzetan, "inoiz ez gara handiengandik hain gertu egon". Itsasadarreko uretan, lehenengo luzean ere aurretik izan zen Deustu. "Ametsa hor zegoen, eskura". Baina arraunlarien gorputzak "nahikoa", "honaino" esan zuen, eta kito! Bi txartel zeuden jokoan, eta Galiziako Ares taldeak

prest205.indd 6 24/09/19 13:27

“Eman genezakeen guztia eman genuen”

eta Zarautzek eskuratu zituzten. Deustuk, horrelakoetan inork gutxik gustuko duen hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Hortaz, datorren denboraldian ere TKE1 ligan lehiatuko da.

Sentsazio “gazi-gozoa” du 23 urteko Urdax Antepara arraunlariak. Kanporaketara helduta, helmugako “ate-atean” geratu diren sentsazioa. Harrotasun hitza gustuko ez duela eta, nahiago du “pozik” dagoela esatea, “eman genezakeen guztia eman baikenuen”. Ez ditu erraz ahaztuko azken asteetan eta, zeresanik ez, bai Bermeoko bai Portugaleteko uretan bizitako tentsio uneak. Tentsioaren “gainzamak” arraunlarien egunean eguneko entrenamenduan eragin badu ere, onerako izan da, “tentsio puntu horrek eman baitigu beste pauso bat emateko aukera”.

Anteparak hamar urte daramatza klubean, bost talde nagusian, eta orain arte ez du horrelako denboraldi historikorik bizi. Jon Elortegi entrenatzaileak arraunlariengan izan duen eragina handia dela aitortzen du. “Bera izan da taldeko gezi punta, gainerako guztiok egindako lana ahaztu gabe”. Taldeak ondo uztartu ditu bai gaztetasuna bai entrenatzaileak eta zenbait arraunlarik eskaini duten eskarmentua. “Izandako baja guztiekin, taldea guztiz eraberritu behar izan dugu. Garrantzitsua izan da etorri diren arraunlarien ekarpena eta taldean sartutako gazteek emandako pausotxoa”.

Zuzendaritza taldeko kideak ere bat datoz arraunlariek merezi duten aitortzarekin. “Guztiok gara protagonista”, dio klubeko lehendakariak, baina “eurak gabe ez dago kirolik, ez dago ezer”. Eta talde apala izateko, arraunlari asko ditu Deustuk. Harrobikoak eta kanpotik etorriak. Besteak beste, “erreferentzia da” Bilbo osoan eta baita lehen mailako taldeetan lekurik ez daukaten arraunlarien artean ere. Zergatik? Klubean dagoen giroagatik eta zintzo jokatzeagatik: “Arraunlariek, txiki zein handi, neska zein mutil, leku bera partekatzen dute gurean. Elkarrekin daude beti, eta horrek talde giroa sortzen du. Aspalditik ari gara klubean kategoria desberdinak jorratzen, arraunlariak

prest205.indd 7 24/09/10 13:27

beti gora ateratzen. Aldi berean, fitxaketa bereziak ditugu, lehen mailako taldeetara heldu ezin diren arraunlariak. Guk ez dugu Kaikuren edo Zierbenaren aurrekonturik, gurea murritza da eta, hala eta guztiz, etorri egiten dira gugana. Horrek esan nahi du gauzak serio egiten ditugula, gezurrik esan gabe. Argi hitz egiten dugu. Noraino hel gaitezkeen esaten diegu, eta zintzotasun hori asko eskertzen dute goi mailako kirolariek".

Bada azpimarragarria den beste lorpen bat ere, klubaren sasoi bikainarekin lotura zuzena duena. 2018/19 denboraldian, Deustu Arraun Taldeak "hiru traineru atera ditu". Gizonenak bi eta emakumeena bat. Hori egin duen Bizkaiko klub bakarra da. "Esanguratsua", Mojasen iritziz. "Lan handia egin dugun seinale. Oso zaila baita hiru traineru betetzea eta mantentzea. Horretarako dirua behar da".

Dirua falta du "argi eta garbi" klubak. "Gainerakoa badaukagu". Horretarako, besteak beste, babesle dituen Bilboko Udala eta Tecuni enpresarekin hitz egitekoak dira klubeko ordezkariak. Izan ere, arduratuta daude, batik bat Tecuniren jarraipenarekin, eta kontuak lehenbailehen argitu nahi dituzte. Beraz, bulego lan handia dute aurretik.

Orain artekoa eta datorrena

Jon Elortegi barrikarra arraunlari handia izandako da. Hainbat Kontxa eta liga ira-

bazitakoa. Entrenatzaile moduan ez zuen esperientziarik, harik eta 2017an Deustura etorri zen arte. “Gurekin hasi zen entrenatzen. Tranpolin bat izan gara berarentzat. Bagenekien kirolari bikaina zela, eta hiru urteotan kristoren tipoa dela jakin dugu; faltan izango dugu”. Elortegik ez du Deustun jarraituko. Hurrengo denboraldian Urdaibai taldea entrenatzeko eskaintza jaso du. Baita onartu ere. Arantzatxoa bihotzean duela alde egingo du. Deustu Arraun Taldea lehen mailan ikusi ezinda. Baina, dudarik gabe, emandako hitza beteta. Azken minutura arte borrokatuko zirela esan zuen, eta horrela izan da.

Alexander Estebanek ordezkatuko du Elortegi. Elortegik ondo ezagutzen du Esteban, eta berak proposatu zuen bere ordezko izateko. Bi funtzio izango ditu Estebanek Deustun: entrenatzaile eta arraunlari funtzioak. Biak uztartuko ditu. Castro Urdialesekoa Oriorekin arraun egitetik dator eta lehen aldiz beteko ditu taldearen gidaritza lanak.

Kezka zegoen Deustun Elortegiren agurragatik, ziklo aldaketak eragin ohi duen ezinegona. Entrenatzaile berriaren hautaketa gustuko du Urdax Anteparak. Biak arraunlariak izanik, entrenatzaile profila antzekoa izango dutela pentsatzen du, eta eskifaia barruan egoteak exijentzia maila igoko duela. Hori aprobetxatu beharrekoa da, “taldea fintzen eta ehuntzen joan ahala, datorren urtean maila berean lehiatzeko, edo pauso bat gehiago emateko”.

Aurreko denboraldian bost arraunlari galdu zituen Deustuk. “Oso garrantzitsuak” ziren bik goi mailara egin zuten alde. Aurten ere bada eskaintzak izan dituenik. “Kaikukoak eta Zierbenakoak inguruan dabiltza”, klubeko iturrien arabera. Zentzuzkoa da, Deusturen denboraldi borobila kontuan hartuta. Taldearentzat onena eskifaia bere horretan mantentzea bada ere, “ez da posible izango”, lehendakariak aurreikusten duenez. “Zaila”, deritzo. Entrenatzaile berriaren erronka izango da eskifaia berria osatzea. Jarraituko dutenekin eta etor daitezkeenekin.

Olatua baliatu

Atseden hartzen ari dira uneotan arraunlariak. *Playoff*-a oraindik bero, jaso duten babes handia zelan eskertu ez dakitela. Inoiz baino gehiago mugitu den Deustuko herritarrena, esaterako, edota elkartasun eta animo mezuak helarazi dizkieten kirol taldeena. Denen artean sortu duten olatuari esker, “arraun mundua apur bat normalizatu da”. Athletic, Bilbao Basket eta Deusto K.E. taldeek sare sozialetan zabaldutako aipamenek izan dute, bai, oihartzuna. “Kirolarien arteko babes horri tiraka”, asko eta asko izan dira *playoff*-eko bi jardunaldiak bertatik bertara jarraitzera hurbildutako lagunak. Eta erantzun zabal horrek hunkitu egin ditu klubeko kideak.

Olatua baliatuta, hurrengo denboraldian arraunaren mundu txikia Deustun eta Bilbon zabaltzea dute erronka. Inguruan eragitea euren esparrua zabaltzeko. Antepara asmo handiko da. “Epe motzean” lehen mailarako pausoa emango dutela ziur dago. “Inbertsioa, talde sendoa eta zortea” behar dira horretarako. Osagai horiekin “pausoz pauso lortuko dugu”.

“Inbertsioarekin, talde sendoarekin eta zortearekin, pausoz pauso lortuko dugu”

UDALEKUETAN NONAHI

Deustu, Ibarrekolanda eta San Inazioko gazteak han eta hemen ibili dira uda honetan. Motxila bizkarrean hartu eta leku andana bisitatu dituzte lagun eta begiraleekin batera. Hurrengo lerroetan bizitako esperientziak kontatu dizkigute ilusio handiz.

Joan den ikasturtean berpiztu genuen Txepetx Aisialdi Taldea, San Inazioko haur eta gazteei auzoan euskaraz jolastu eta gozatzeko aukera emateko. Hainbat ekintza egin ditugu urte osoan zehar: talde dinamikak, antzerkiak, tailerrak, txangoak... eta baita hiru eguneko irteera ere! Ekaina amaieran Galdames inguruan ibili ginen. La Olla burdinolako ur putzuan bainatu ginen, Madalenako kobazuloan sartu ginen eta herriko festetan dantzatu ginen. Txabarri auzoko aterpetxean jolasteko tartea ere izan genuen: joko zikinak, ginkana, pisten jolasa, txantxa gaua... Izugarri ondo igaro genituen egunok elkarrekin, eta aurten ikasturte berria hasteko irrikaz gaude.

TXEPETX

IZARTXO

Urtero bezala, ekaina eta uztailean zehar La Salleko gazteek Izartxo aisialdi taldeak antolatutako udalekuetan parte hartu dute. Gazteenak Beintza-Labaiengo (Nafarroa) Orbela aterpera joan dira eta koskortuagoak Izaba aldean ibili dira. Nagusiak ere ez dira geldi ibili: batxilergoko lehen mailakoek Euskal Herria alderik alde zeharkatu dute hainbat proiektutan parte hartzen ibilbide solidarioan zehar, eta bigarren mailakoak Granada aldean ibili dira hango hainbat elkarterekin elkarlanean. Gazte zein begirale, denok neka-neka eginda amaitu dugu, baina merezi izan du, uda itzela pasa dugu-eta!

Aurten Etorkizunako eskautek Euskal Herria eta Galiza konkistatu dituzte. Txikienek Birgara Goienen (Araba) pasa dituzte 15 egun, Oinarinek kanpamentu ibiltaria egin dute, Azkarrak Bilbotik Birgara Goieneraino joan dira oinez eta, azkenik, Trebeek Done Jakue bidea egin dute Burgosetik Santiagoraino. Urte osoan zehar harremanak landu ditugu eta kanpamentua hauek martxan jartzeko momentu ezin hobea izan da. Azken egunean adar guztiak eta gurasoak elkartu ginen eta familia erraldoia sortu genuen. Orain kanpamentu horren oroimina bakarrik geratzen zaigu, baina prest eta gogotsu gaude ikasturte berri honetan izango ditugun abentura berriak bizitzeko. Beti Prest!

ETORKIZUNA

prest205.indd 10 24/09/19 13:27

Erretes Lantenon (Araba) egin ohi dugu gure kanpamentua. Landan ez dagoenez ezer, geuk muntatu behar dugu guztia: kanpin-dendak, sukaldea, jantokia, dutxak… Abentura dugu hasi bezain laster! Aurten Eskubeltz Eskaut Taldearekin partekatu dugu landa. Baita istorioak, jolasak, arratsaldeak gitarrarekin, hainbat kanta, dantza, barre-algara eta negar-malko ere. Auzune desberdinetako gazteak ezagutu ditugu horrela. Bestalde, Azkarrak Pirinioetatik ibili dira eta Trebeak Algecirasen. Bertan genero indarkeria jasandako emakumeekin, etorkinekin eta kartzelatik atera berri diren pertsonekin hainbat solasaldi, jolas eta ekintza egin dituzte.

EGUNSENTIA

TXANTXIKU

Uztailaren 16an abiatu ginen Txantxikuok Murietara. Erreza zen 12 egunetarako proposatutako jolasa: oasi bat eraiki behar genuen, denon artean, denok batera. Lehen bi egunak Murietan, hurrengo guztiak Acedon. Guztiontzako leku segurua da oasia, elkar zaintzen duen jendez osatzen duguna, euskaraz. Asterix eta Obelix izan gara eta elkarrekin Davidek Goliat garaitu dezakeela deskubritu dugu. Enigmetan ere jolastu gara, gauzak ez baitira beti diruditena. Piratak bihurtu eta beste hamaika itsaso ezagutu ditugu. Indioak ere izan gara eta “indioarena” egiteaz gain, hainbat kulturaren inguruan ikasi dugu. Urarekin jolasean ibili gara eta errekara bisita egin dugu. Umeek egun bat antolatu dute, begiraleok ere asko baitugu ikasteko. Eta guzti horren ostean, azkenean itzuli gara, hasieran ezezaguna zen basamortua oasi bilakatuta.

Urtero bezala, motxilak hartu eta Burgosera abiatu ginen, Crialesera. Dena txukuntzen eta prestatzen hasteko, begiraleok egun batzuk lehenago joan ginen. Domeka heldu eta umeak landara iritsi ziren. Dendak muntatu eta guneari azken ukituak eman zizkioten: jolastokiak egin, esekilekuak prestatu... Horrela hamabost egunetan gure etxea izango zena prest utzi genuen. Egunak aurrera joan ahala, hainbat ekintza egiteko aukera izan genuen. Alboko herriak bisitatu eta ezagutu genituen, Crialesera joan ginen egun-pasa, lokatzetan borrokatu ginen, eskumuturrekoak egin eta xakean jolastu ginen, arropa garbitu eta errekan bainu amaigabeak hartu genituen, beste mila gauzen artean. Nola ez, izarren azpian mila kanta abestu genituen gitarraren laguntzaz. Egunak zenbatzen datorren udalekurako. Gora Gazte Alai!

GAZTE ALAI

prest205.indd 11 24/09/19 13:27

FRANCESC MACIÀ ETA ESPAINIAKO ARMADA AURREZ AURRE DEUSTUAN (II)

Aurreko zenbakian Francesc Macià izena eraman behar zuen Deustuko etorbidea, indarraren indarraz, Espainiako Armadari zelan eskaini zioten ikusi genuen. 1934ko abuztuan kargugabetu zituzten alkate eta zinegotzi abertzaleak eta ezkertiarrak eta 1935eko otsailean eman zioten Armadaren izena etorbideari.

Testua: Hektor Ortega

Otsaileko udal bilkura hartan, eskuindarrez osatutako korporazioko kide batek zalantzan jarri zuen etorbidearen izen aldaketaren egokitasuna: "No es misión del actual Ayuntamiento enmendar la plana al anterior en lo que se refiere al cambio de nombres de calles, sino otra más seria y elevada". Esteban Calle Iturrinok erantzun zion esanez ba ze ez zegoela aldaketarik gobernadore zibilak eragotzi zuelako Maciàren izendapena gauzatzea. Eta gainera, "honrar al Ejercito no es hacer política y sí, en cambio, el oponerse a ese homenaje". Calle kazetaria zen, El Correo Españolen sortzaileetako bat, eta urte batzuk geroago Hitlerren eta Mussoliniren aldeko hitzaldi sutsuak eman zituen. Beharbada, politika egin barik.

Bide batez: Deustukoa ez zen izan izena aldatu zioten kale bakarra. Hatzamarrez izendutako udal korporazioak martxoaren 3an honako erabakia hartu zuen: "Se acuerda que de ahora en adelante se denomine Plaza de España a la que viene conociéndose con el nombre de Plaza de la Estación y que suele denominarse vulgarmente Plaza Circular". Eta zergatik? Proposamena egin zuen Gomez-Guadalupe erregidorearen hitzetan, "España había sido agraviada por Bilbao con motivo de la huelga revolucionaria, y era necesario dedicarle este homenaje, que al mismo tiempo había de servir de estimulante para afianzar el españolismo en el pueblo y contener los avances del separatismo cada vez más audaz".

Udal antidemokratiko hark ez zuen luze jardun. 1936ko otsaileko udal hauteskundeekin herriak hitza berreskuratu zuen eta eskuindar saldo hura galtzaile atera zen. 1934ko abuztuan kargu barik laga zituzten alderdiak (Izquierda Republicana, EAJ, PSOE, EAE...) nagusitu ziren eta kargugabetutako alkateak, Ernesto Erkoreka errepublikazaleak alegia, atzera hartu zuen aginte-makila, bilbotarrek hala erabakita. 1936ko otsailaren 26an, udal korporazio berriak hartu zituen lehenengo erabakien artean, ondoko hau zegoen: "Se restituirá a su antigua denominación todos los nombres y las plazas y calles de la Villa, que hayan sido cambiados en el periodo durante el cual se ha hallado suspenso el Ayuntamiento de elección popular". Hortaz, egun hartan Armada espainola Deustuko etorbiderik gabe gelditu zen eta Espainiak bere plaza biribila galdu zuen.

Francesc Macià etorbidea

Esan eta egin. Apirilak 14 zituen. Deustuko etorbide berrian ekitaldi xumea gauzatu zen. Ernesto Erkorekak, aurrean zeukala Maria Macià, Francescen alaba alegia, eta Catalunyatik etorritako delegazio politiko bat, gogora ekarri zituen hala politikari katalanaren jarduna nola 1934an Deustuko etorbideari haren izena emateko ahalegina. Jarraian, plaka zabaldu zuten, "gora Euskadi" eta "visca Catalunya" oihuen artean.

prest205.indd 12 24/09/19 13:27

1

2

3

4

Las autoridades ocupan la tribuna levantada en la nueva arteria de Deusto, a la que se ha dado el nombre de Avenida de Francisco Macià. (Véase la información de este acto en quinta página.) (Fot. José Ma

1- Erkoreka eta Maciaren alaba

2- Agirre berbetan

3- Plaka zabaltzen

4- Etorbidea

Ondoren, Puig i Ferrater diputatu katalanak berba egin zuen, Lluis Companys presidentearen izenean. Eta jarraian, euskal diputatu bik, Indalecio Prieto sozialistak eta Jose Antonio Agirre jeltzaleak, geroago lehendakaria izango zenak. Hirurek gogoratu zuten Bartzelonan bazegoela Sabino Arana etorbidea, herri bien arteko anaitasunaren erakusgarri. Agirre izan zen euskaraz berba egin zuen bakarra, labur bada ere. “Macià andereño hori! Joan zaitez, arren, zuen aitaren hilobira eta esan egiozu, Euskadiren izenean, bizi zenean maite genuela eta gure bihotza, eta euskotar guztiona, hantxe bertan utziko duzula, oso-osorik”.

Horrela zabaldu zen Deustuko Francesc Macià etorbidea. Ez zuen luze iraungo, baina. [jarraituko du]

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

artikulua
Azken gudari deustuarra

JOSE MORENO 1936KO GERRAKO AZKEN GUDARI DEUSTUARRA ZENDU DA

Abuztuaren 29an, 100 urte zituela, hil zen Jose Moreno, 1936ko gerra bizirik gelditzen zen azken gudari deustuarra. 1918an Deustuibarran jaiotakoa, azken hatsa eman arte memoriaren alde eta Frankismoaren inpunitatearen kontra aritu da buru-belarri. "Frankismoaren krimen guztiek zigorrik gabe jarraitzen dute", salatzen zuen 2014an PREST! aldizkariari eskainitako elkarrizketa batean (143. zk).

Testua:
Borja Sarrionandia-Ibarra

17 urte besterik ez zuen Jose Morenok militar faxistak indarrez altxatu zirenean. Astrabuduako jaietan harrapatu zuen altxamenduak.

Morenok, herritar askok bezala, berehala eman zuen izena faxismoari aurre egiteko Done Petri plazan zabaldutako bulegoan. Sondikan eraikitzen ari zen aireportuaren obretara bidali zuten. Bera bezalako 17 urteko gazte batentzat lan hori aspergarria zenez eta, ELAkoa zenez, sindikatuarengana joan eta lubakiak egiteko eratzen ari zen San Andres zulatzaileen batailoian izena emateko aukera eman zioten.

Zallan eratu zen batailoia. Balmasedan instrukzioa egin eta berehala eraman zuten Zeanuri aldera lubakiak egiteko. Bilbo erortzear zegoenean Lemoara lekualdatzeko agindua jaso zuen, baina ordurako ezinezkoa, armada frankistaren esku zegoelako. Gorbeiatik ihes egin behar izan zuen kideekin eta Orozkon babestu ziren. Hortik, atzeraka ibili zen Espainiako Santanderreraino (egungo Kantabria). Santoñako komentu batean kokatu zuten. Bertan zulatzaileak izateari utzi fusilariak izateko. 1937ko abuztuan Euskal Herrian izandako azken borrokaldian parte hartu zuen, Balmasedako Kolitza mendiaren inguruan, hain zuzen. Bataila galdu zen eta, hortik gutxira, Santoñara joateko agindua jaso zuen.



Preso

Santoñan Francoren armada faxista laguntzeko Mussolinik bidalitako tropa italiarren esku gelditu zen preso. Italiarren esku egon bitartean eskubide guztien jabe izan zen. Zoritxarrez, egoera horrek ez zuen askorik iraun. Berehala jarri zuten falangisten eta armada frankistaren esku eta infernua hasi zen. "Hemendik aurrera pertsonak izateari utzi eta animaliak izango bagina bezala tratatu gintuzten, nire kasuan, 1940ko urtarrilaren 8ra arte, aske utzi ninduten arte", salatzen zuen Morenok.

Espetxez espetxe izan zuten hiru urtez, ostera, kargurik gabe libre uzteko. Sakabanaketa politika ez da garai honetako asmakizun bat; frankistek ere aplikatzen zuten. Santanderreko Tabacalera kontzentrazio eremua, San Gregorio, Huesca, Larrinaga, Escolapios eta Zaragozako San Juan de Mozarrifar izan ziren ezagutu zituen zenbait espetxe. Lan esklabotza egitera behartu zuten ere, Zaragozako errepideak egitera hain zuzen.

Oso espetxealdi gogorra pairatu behar izan zuen Morenok, eta hori gutxi balitz, koinatu

prest205.indd 14 24/09/19 13:27

baten heriotza jasan zuen, Juan Lopez Balza, Deustuibarrako sozialista bat, UGTko kidea eta Euskadiko Infanteria Gerra Eskolatik teniente karguarekin ateratako gudaria, hain zuen. Puerto de Santa María (Cádiz) espetxean zendu zen 1940an osasun asistentzia ezagatik.

Espetxetik atera eta soldadutza armada frankistarekin egitera behartu zuten. 1937tik atera zen Deustutik eta ez zen itzuli 1942ra arte. Oso itzulera gogorra izan zuen, gainera. Frankismoaren hasierako garai horietan lan egin ahal izateko jokaera oneko ziurtagiri bat aurrez eskuratu behar zuen. Elorrietan Guardia Zibilak zuen kuartelera gerturatu eta bertako kornetak, oso tipo bortitza eta jendearekin oso txarto portatu zenak, ostia pare batez hartu zuen. "Arriba España" eta "Viva Franco" oihukatzera behartu zuen Moreno, gainera, ziurtagiria ez emateko.

Geroztik, aktiboki aritu zen 36ko gerrako gudarien memoriaren alde lanean: Aterpe 36 elkarteko presidentea. Frankismoaren aurkako Argentinako kereilaren barruan ere deklaratu zuen, 2016an.

Azken urteetan, hedabideei helarazitako eskutitzen bidez frankismoaren krimenak salatu izan ditu beti. Aldirokoak izan dira egungo hainbat alderdi politikoren jarrera salatzeko Morenoren hitzak frankismoko krimenak "estaltzeagatik": "Diktaduran jarraitzen dugu. Haiek agintzen dute oraindik".

Iñigo Urkullu EAEko lehendakariak ere gogora ekarri du Morenoren irudia: «Bere natura txikitik pertsona handia, bihotz-zabala, gure artean itzal luzea utziko duena». Deustuko EH Bilduk, berriz, honako hau zabaldu zuen sare sozialetan: "Faxismoaren kontra eta Demokrazia, Askatasuna eta Euskal Herriaren alde borrokatu zen Jose Moreno gudari deustuarra zendu da. Eskerrik asko, Jose. Gure besarkadarik beroena familia eta lagunei".

berbetan

ATXARTE SALVADOR ETA ROBERTO NOVALekin

11/13 sumarioko auzipetuak

“Orain beste guztiak

prest205.indd 16 24/09/19 13:27

Testua: Nerea Olaziregi
Argazkiak: Nerea Cubillo eta Laura Freijo

ekarri behar ditugu etxera”

Naia, Eukene, Roberto eta Atxarte herrian daude dagoeneko. Madrilen akordioa sinatu eta bi egunetara elkartu gara azken biekin. Zapore gazi-gozoa dute, kartzelan sartuko ez dituzten arren, zigortuak izan direlako. Baina, era berean, harro daude, erabaki kolektiboa hartzeko gai izan direlako eta jasotako babesa “itzela” izan delako. Auziak piztutako elkartasuna espetxean eta erbestean daudenak ekartzeko ezinbestekoa dela azpimarratu dute.

Zelan zaudete?

Atxarte (A): Lurra hartzen, gertatu den guztia barneratzen eta ulertzen saiatzen. Fisikoki ukituak, tentsio handia pasatu dugu, azken txanpa oso intentsua izan da baina orain ondo nagoela uste dut.

Roberto (R): Egunak beharko ditugu horretarako. 2013tik daramagu kontu honekin, prozesuan sartuta zaudenean aurrera egiten duzu baina bukatutakoan bajoi fisiko eta emozionala sentitzen da. Lasaitasun puntu bat ere badugu, horregatik gaixotzen hasi gara seguruenik.

Asanblada informatiboa antolatu duzue Herriko Tabernan. Zer kontatu nahi duzue?

A: Jendeari gure esker ona adierazteko beharra sentitzen dut batez ere, eta zuzenean kontatzeko komunikabideen bidez jakin dutena. Nolabait istorio hau ixteko behar dudan zerbait da.

R: Arduragatik ere egiten dugu. Beti zuzendu gara Euskal Herriari eta gure herriei. Gainera badakigu hor dau-

prest205.indd 17 24/09/16 13:27

▷▷ SAKONEAN

“Preso eta iheslariekiko elkartasunak ekarri gintuen hona eta hori konpondu gabe dago”

2013an hasi zen auzia, Herrira elkartearen aurkako operazioan. Urte hauek guztietan zelan eragin dizue eguneroko bizitzan?

Atxarte: Bizitzako erabaki garrantzitsuak hartzerako orduan, lana ala familiari dagokionez adibidez. Baita ere gauza praktikoetan. Neurri zehatzak, Estatutik ezin atera, ezin pasaportea eduki… Etxea, kotxea eta bankuko kontu bat blokeatuta eduki ditut. Presoak bisitatzeko zailtasunak beti egon dira baina orduan areagotu ziren. Dokumentazioa lapurtu ziguten eta horrek presoen aldeko abokatu lana oztopatu zuen.

Roberto: Nire kasuan sei urtez hamabostero sinatzera joan behar izan naiz eta ezin izan dut preso edo iheslariekin zerikusirik duen edozein jardueraren antolaketan parte hartu.

Hemendik aurrera, zer?

Roberto: Preso eta iheslariekiko elkartasunak ekarri gintuen hona eta hori konpondu gabe dago zoritxarrez. Espero dezagun prozesu honek bide horretan bultzada handia izatea.

Atxarte: Espainiar Audientzia Nazionala desagertu behar da.

denak lagunak eta militanteak direla eta merezi dute gure ahotsetatik entzutea zein den gure balorazioa.

Uste duzue jendeak ulertu egin duela Fiskaltza eta akusazio partikularrarekin egindako akordioa?

A: Jendeak ez du azalpen askorik behar. Jendeak badaki Espainiako Auzitegi Nazionalean ezin dela justiziarik topatu, eta elkartasuna eragin du beldur horrek. Nik sentitu dut jendeak lasaitua hartu duela, aurretik badaude esperientzia batzuk eta jendeak ulertu duela uste dut. Egia judiziala eta egia materiala ez dira zertan bat etorri. Kontzeptu juridikoa da hori.

Kritikak ere izan dira. Mindu zaituen zerbait egon da?

R: Mindu ez. Akordioa sinatu genuenean bagenekien Euskal Herriko sektore bat ez zela ados egongo, baina ez dut uste inor triste dagoenik 45 pertsona ez goazelako kartzelara. Badakigu non dagoen gakoa, badago ezker abertzalearen estrategia politikoa partekatzen ez duen jendea. Kritika ez zaigu guri zuzenean egiten.

A: Oso argi dut erabakiaren balioa. Erabaki kolektiboa izan da. Eztabaidatua, ezin dugu ukatu kontraesanak sortu dizkigula;

prest205.indd 18 24/09/19 13:27

gauza askok sortzen dizkigu kontraesanak egunerokotasunean eta militantzian. Kontraesanak berez ez dira txarrak. Iruditzen zait erreza dela kanpotik kritikatzea eta kritika horiek oso urrun sentitzen ditut, beste sintonia batean guztiz, nahiz eta jende ezagunak egin dizkidan. Nik uste dut gure artean lortu duguna harro egoteko modukoa dela.

Nola bizi duzue zuen arteko eztabaida prozesua?

A: Zaila izan da baina harro egoteko modukoa. Hasieran martxan jartzea asko kostatu zitzaigun.

R: Bileretan eskarmentua genuen denok, guztiok militanteak izan gara edo gara. Errespetuzkoa eta sanoa izan da eztabaida eta jarrera positiboak eta eraikitzaileak nagusitu dira.

Era berean, jasotako babesa eta elkartasuna handia izan da. Holakorik espero zenuten?

A: Itzela izan da ikustea zelako gaitasuna dagoen antolatzeko, erreakzionatzeko, zelako irudimena, argitasuna, umorea… Deustuko herriarekin oso pozik gaude, esker onik baino ez dugu. Azpimarratzekoa da ere abokatuen elkarteengandik jasotako elkartasuna.

R: Guk bidea zabaldu baina herrietatik sortutako zerbait izan da eta erantzun itzela jaso dugu. Uste dut ez garela gai izan jasotzeko egin diren ekimen guztiak. Bi hilabete eta erditan 11.000 atxikimendu baino gehiago lortu genuen oso denbora gutxian, nik hori oso gutxitan ikusi dut. Azken urteotan agian ez dugu asmatu zelan aktibatu herriak preso eta iheslarien gaiarekin. Kontu honekin jarri dugu bide bat egoerari buelta emateko, ea orain gai garen preso eta iheslarien gaia agendaren lehen lerroan jartzeko.

Egindako ekimenetatik, badago zerbait azpimarratu nahi duzuena? Bereziki hunkitu zaituena?

R: Mojitoena aipa dezakegu? (barrez)

A: "Deustuarrak herrira" kamisetarena oso ondo egon da. "47ak herrira" izan da lelo orokorra baina argi zegoen Deustun izaera propiodun leloa agertu behar zela. Kamiseta horrek zoritxarrez, ez du iraungitze datarik. Erriberan jasotako babesarekin ere flipatu dut, auzokide askoren berotasuna sentitu dut.

R: Bai, lelo horrek bat egiten du gure planteamenduarekin. Ez da soilik gu lauron afera. Oraindik Jon eta Juankar espetxean ditugu. Epaiketa aurreko ostiralean egondako mobilizazioarekin oso pozik geratu nintzen, jendetsua eta anitza izan zen, Deustun egindako lana eta emaitzaren isla.

47 auzipetuetatik, bi pertsona espetxera bueltatu beharko dira eta gainerakoak kalean egon arren, inhabilitazioak eta isunak jasoko dituzue. Zer dakar horrek?

R: Azken finean, zigortu gaituztela. Eta hor dago kontraesana eta mina. Gutako bi, Jon eta Arantza, barrura joango dira. Eurek eskuzabaltasunez hartutako erabakiak erraztu egin du akordioa. Bestaldetik, hiru urtez, baldintzapeko askatasunean egongo gara, horrek dakartzan ondorio guztiekin: epaitegira sinatzera joan beharko gara, ezin izango dugu presoekin lotutako ekitaldien antolakuntzan parte hartu eta inhabilitazioak ere hor daude.

Adierazpenetan azpimarratu duzue akordioarekin herri honen konponbidearen auzian ekarpena egin nahi izan duzuela. Zein da ekarpen hori?

R: Azken finean 45 pertsona ez gara espetxera joango eta pertsona aktiboak gara gure herrietan. Lanean jarraituko dugu bakoitza dagoen eremutik. Bestaldetik, preso eta iheslarien afera konpontzeari begira, bide judiziala hor dago eta bertan egon daitezkeen akordioak azkartu ahal du hainbat pertsonen kaleratzea. Zentzu horretan, irtenbideak bilatzeko beste aukera bat jarri dugu mahai gainean.

A: Behintzat ez dugu lan gehiagorik emango.

"Egia judiziala eta egia materiala ez dira zertan bat etorri. Kontzeptu juridikoa da hori"

prest205.indd 19 24/09/19 13:27

EUSKARA

Deustualdean Egunean Behin tribialean jokatzeko taldea

Galdera-erantzunen euskarazko jokoa da Egunean Behin. Izenak dioen bezala, egunean behin baino ezin da jokatu. 10 galdera erantzun behar dira, ahalik eta azkarren. Astero bi sari banatzen dituzte, irabazleari bat eta zozketa bidez beste bat. Banaka zein taldeka jokatu daiteke, eta Deustun taldea sortu dute elkarrekin jokatzeko. Iaz abiatu zuen CodeSyntaxek mugikorrentzako aplikazioa, eta izandako arrakastari eusteko bigarren denboraldia martxan jartzea erabaki du taldeak. Erabiltzaile kopurua haztea helburu, berrikuntzekin hasi dute aurten jokoa.

ZUBIA

Urrian elkartuko dituzte Zorrotzaurre eta San Inazio

Erriberako uharteak beste zubi bat izango du, Zorrotzaurreko muturra San Inaziorekin lotuko duena. Hilabeteak daramatzate kanalaren bi aldeetan lanean, eta urrian zubia ipiniko omen dute. Sevillatik ekarri dituzte zubia osatuko duten piezak eta egitura muntatu ostean kanalaren alde banatan eraikitako oinarrietan jarriko dute, bi-hiru eguneko lanaldian. Pieza bakarra izango du, eta ez du uretan euskarririk izango. Ondoren hormigoiz bete eta frogak egin beharko dituzte. Lanak urria erdialdean hastekoak dira era 2020ko lehen hiruhilekoan irekiko da zubia Zorrotzaurreko muturrean betetze lanak egiteko. Udalak oraindik ez du erabaki noiz irekiko den herritarrentzako.

ERRIBERA

Zorrotzaurre zerga-paradisu bihurtzeko arriskua

EH Bilduk 17 emendakin aurkeztu dizkie Bilboko 2020ko ordenantza fiskalei. Koalizioak zerga-sistema "justuagoa" eta "progresiboagoa" lortu nahi du emendakinokin. Horien artean Zorrotzaurreko irla "paradisu fiskal" bihurtzearen aurkako emendakina aurkeztu dute. Salatu dutenaren arabera, Udal Gobernuak onura garrantzitsuak eskaini nahi dizkie enpresa handiei, hauen "irabazi asmoa kontuan hartu gabe". Horrek zonaldea "paraisu fiskal" bihurtu dezakeelaz ohartarazi eta enpresei onurarik ez ematea eskatu dute.

MERKATARITZA

BM-k San Inazio eta Ibarrekolandako Simply-ak erosi ditu

BM supermerkatuak kudeatzen dituen Uvesco taldeak Sabeco Banaketarekin akordio bat sinatu du, enpresa honek Bizkaian Simply markarekin dituen 11 supermerkatu bereganatzeko. Horietatik bost Bilbon daude: Ibarrekolandan, San Inazion, Begoñan, Rekalden eta Santutxun. Gainerakoak Barakaldon, Santurtzin eta Portugaleten daude. Guztira 12.000 m2 gehiago izango ditu BM-k Bizkaian. Honen ondorioz, San Inazio eta Ibarrekolandan marka horretako hiru supermerkatu egongo dira, eta Simply markakorik ez. Uvesco taldeak langile guztiak bere egingo ditu. 1993an VES eta UNIALCO enpresen bat-egitetik sortu zen Uvesco, eta geroztik hainbat marka bereganatu ditu. 2011an Ercoreca hartu zuen eta 2017an Gigante katea. Zenbait frankizia ere baditu, BM Shop izenarekin.

prest205.indd 20 24/09/19 13:27

Urtea: 1893

Txema Luzuriaga

Olabeagako zamalekuak

Irailarekin batera argazki bilduma berria hasiko dut. Honako honetan Deustun desagertuta dauden eraikin eta eraikuntzak erakutsiko dizkizuet. Erriberako argazki honekin hasiko naiz, non Olabeagako bi zamaleku ageri diren.

Minerala mendialdean zegoenez, hainbat modutan garraiatzen zen itsasontzi eta gabarretara: errepidez, bagonetetan, trenbidez, ibilgailuetan… Zamaleku hauek ziren materiala ontziratzeko puntuak, eta hainbat zeuden itsasadar osoan zehar. Orain denak desagertu dira, bi izan ezik. 1893an egindako argazki honetan, Olabeagako bi zamaleku ageri dira lehen planoan.

Argazkia: Hauser y Menet. Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoaren Katalogoak lagatako argazkia. Erref.: AL 10/026.

prest205.indd 21 24/09/19 13:27

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer deritzozu bizikleten mailegu zerbitzuari?

Maelle Plentzia

Mugikortasuna errazten dute, metroak uzten ez zaituen tokietara joan zaitezkelako. Gainera ingurumena zaintzen laguntzen dute. Arazoa da ordu bateko muga daukala.

Itziar Gernika

Ondo dagoela uste dut. Nik ez dut erabiltzen baina jendeak dio ondo dabilela.

Mikel Miribilla

Ez dut zerbitzua erabiltzen baina egokia dela deritzot, batez ere elektrikoak badira.

Youssef Deusto

Ondo iruditzen zait bizikletak maileguan uztea baina nik ez dut erabiltzen.

Iker Deustu

Ondo iruditzen zait, baina nirea erabiltzea nahiago dut, sorpresarik ez izateko. Orokorrean jendea pozik dagoela iruditzen zait, baina ez daude oso zainduta.

Luis Daniel Santurtzi

Ez dut erabiltzen, Santurtzikoa naizelako, baina han ere jarriko balituzte, hobe!

prest205.indd 23 24/09/19 13:27



>> BERTSOLARITZA

AFERAK, BERTSOLARI GAZTEENTZAKO PLAZA

Bertsolari gazteei plaza eskaintzeko helburuarekin sortu zen Aferak Bertso Dinamika orain hiru urte, Elorri Bertso Eskolaren eta Deustuko Herriko Tabernaren elkarlanez. Irailaren 26an emango diote hasiera aurtengo edizioari, otsailera arte luzatuko dena. Sei hilabetetan 20 bertsolari igoko dira Herriko Tabernako oholtzara, bost gai jartzaileren esanetara. Dinamika biribiltzeko otsailaren 8an bertso bazkaria egingo dute, beste hiru bertsolarirekin.

Testua: Jone Gartzia **Kartelaren diseinua:** Laura Freijo

Deustun ikasturte berriarekin batera, bertso denboraldia ere hasi ohi da. Duela hiru urte sortutako dinamikari jarraiki, irailetik otsailera bitartean hainbat bertso saio antolatuko dituzte Elorri Bertso Eskolak eta Herriko Tabernak elkarlanean.

Ez dira, ordea, saio arruntak izaten, umoretsuak, informala eta lotsagabeak baizik. Entzutera doazenek badakite ez dituztela aurkituko eskuak poltsikoetan edo bizkarrean gordeta dituzten bertsolari serioak, eta, akaso, haiek ere parte hartu beharko dutela jakitun dira.

Egun bakoitzak gai orokor bat izaten du, eta, horren arabera, bertsolariak, gaijartzaileak eta aretoa bera mozorrotzen dituzte. Gainera, jolasak prestatzen dituzte entzuleak isilik geratu ez daitezen eta haiek ere jardunaldiaren parte bihurtzen dituzte.

Horrela, saio dibertigarriak egiten dituzte, baina gai mardulei ere heltzeko beta hartzen dute. Seriotasuna eta informaltasuna uztartuz, saioen kalitatea zaintzen saiatzen dira, eta pozik daude azken urteetan jasotako emaitzekin. "Lehenengo urtean saio guztietan betetzen zen Herriko Taberna, eta jendea kanpoan geratzen zen", diosku Ander Anakabe Elorri Bertso Eskolako kideak. Urteekin jende oldea baretu da, baina horrek ez ditu kezkatzen, arrakasta saioen kalitatean neurtzen baitute, eta alde horretatik oso baikorrak dira.

Dinamikak Deustualdean sortutako bertso-giroarekin ere gustura daude, urte osoan zehar bertan bertsoak entzuteko aukera ematen duelako, jaietako bertso-saioaz harago. Gisa berean, Aferakek dinamikan parte hartzen duten bertsolarien arteko harremanak pizteko ere balio du, eta elkarrekin lan egiteko edo entrenatzeko aitzakia ona izan da.

Irailetik otsailera, saio bana

Urtero balorazioa egiten dute dinamika amaitutakoan, zer aldatu eta zer hobetu eztabaidatzeko. Aurtengo berrikuntza da bertsolariak multzoka banatuko dituztela. Hau da, lehenengo saioan, irailaren 26koan, Gipuzkoatik hona ikastera etorritakoek kantatuko dute; bigarrenean, Gernikako Lilibertso eskolakoek; hirugarrenean Elorrikoek; abendukoan, Algortako Albe bertso eskolakoek eta urtarrilekoan inguruko bizkaitarrek. Era honetan, bertsolariak erosoago egotea nahi dute antolatzaileek, oholtza gaineko bertsolariek elkar ezagutuko baitute.

Irailetik urtarrilera bitartean izango dira saioak, hilean bana, ostegunetan eta Herriko Tabernan beti, 20:00ak inguru. Dinamikari amaiera emateko, gainera, bertso bazkaria egin izan dute, eta aurten ere mahai baten inguruan biribilduko dute bertsotan. Otsailaren 8an finkatu dute data, momentuz sekretu diren bertsolariekin.

prest205.indd 24 24/09/19 13:27

BIHOTZ ALAI

Ume, gazte zein heldu, informatu eta izena eman!

bihotzalaidt@hotmail.com

Bihotz Alai Dantza Taldea

AURRERA
DEMOSTRALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

BIHOTZ ALAI
FOLKLORE DANTZA
TALDEA

Amaia Mintegi eta
Eneko Diaz de la Barcena

CHIAPASEKO IRRI GORRIA

Emiliano Zapata eta Pancho Villaren eskutik piztutako 1910eko iraultzaz geroztik (lurraldearen defentsan eta indigenen eskubideen aldekoa eta esklabotzaren kontrakoa) zer edo zer aldatu egin zen Mexiko hegoaldean. Chiapas deituriko zonaldean, 10 urteko antolakuntza indartsuaren ostean 1994an alternatiba eraiki zen: iraultza zapatista. Subcomandante Marcos eta Moises aritu ziren ezkutuan, Lacandona oihanean barrena euren askatasunaren iraultza antolatzen. Armak harturik agertu ziren urtarrilaren lehenean, haren ejerzitoaren (EZLN) babespean. Besteak beste, ezaguna den Comandanta Ramonarekin. Modu baketsuan zabalkunderako joerarekin jarraitzen dute indigenek eurek eraikitako lurralde autonomoetan, gaur egungo bizimodua erresistentzian oinarritzen delarik. Aurretiaz TxiapasEKIN plataformarekin formazioa jaso ostean, urduri hartu genuen hilabete baterako hegaldi luzea, gure eskuetan Lacandona Oihaneko deklarazioen inguruko liburuxkek babesten gintuztela.

Guatemalatik pasatu ostean, arin abiatu ginen mugaz bestaldera, eta jarraian nabaritu genuen haize hori aurpegian: iraultzaren usaina zekarren. Usain eder eta fuertea, tinko mantentzen dena borrokatzen duten herri horietan. San Cristobal de las Casas izan zen gure lehenengo geltokia, Chiapaseko hiriburu kultural eta matxinoa. Nahiz eta turismoaren oinatzak ikusi harrizko kaleetan, nabaria zen gorderik zeukan memoria eta antolakuntza.

Guatemalako mugan kokatzen den herri batera bideratu gintuzten brigadetan, kafea, kakahuete eta artoa lantzen zen lurraldera. Gutxi ziren bertan bizi ziren familia zapatistak baina beste errealitate batera gerturatu gintuztenen ezagutu genituenak. Hain zuzen, zapatistak ez direlako borrokan ari diren bakarrak, hainbat sektore mobilizatu dira oinarrizko eskubideak urratzen dituztenen kontra. Patriarkatua, enpresa minera esplotatzaileak, polizia korporazio berriak eta antolakunde armatuak besteak beste; estatuaren arma latzak alegia. Iraultzan, emakume boteretsuak, nekazari antolatuak eta ume eta zahar errebeldeak dabiltza duintasun, demokrazia eta justiziaren alde borrokan.

Hainbat mundu sartzen baitira mundu txiki horren baitan.

prest205.indd 26 24/09/19 13:27

Gaizka Suarez

KUBARA ESKALA POLITIKOAN

Santiagoko aireportu txikian lehenengo aldiz ozeanoaz beste aldeko lurrak zapaldu eta berehala nabaritu nuen bestelako mundu batera ari nintzela sartzen. Patxada handiz igaro genuen bertako kontrol xumea eta behin maletak hartu eta txapona aldatuta, igo ginen zain genuen ICAPeko (Instituto Cubano para la Amistad de los Pueblos) autobusera. 11 egunez Santiagotik La Habanara bidaiatu genuen elkarte horretako bi kiderekin, Santa Claran ere egun batzuk emanda. Biak bihotzean eramango ditut betiko: Cova "txofferra" eta Emeria gida.

Orokorrean, bi dira Kubari buruz Euskal Herrian dauden ikuskera nagusiak. Alde batetik, botorearen esku dauden komunikabide nagusiek hainbeste urtez hedatu nahi izan duten irudia: Kuba miseria eta askatasun ororen ukapena dakarren diktadura castristara kondenatutako lurra da. Bestetik, XX. mendeko iraultzen erresistentziaren ikur gisa dutenak daude, beste mundu justuago baten alde bizirik dirauen esperientzia sozialista eredugarria izanik. Aitortu beharra dut hamar sortzailez osatutako euskal delegazioarekin abentura txiki hau abiatu nuenean aipatutako bigarren posiziotik gertuago nengoen arren, zalantza ugari nituela eta zer aurkituko nuen beldur nintzela ere hein handi batean.

Ezinezkoa da egun horietan bizitakoa hain lerro gutxitan kontatzea. Kuba ezohiko modu batean ezagutzeko aukera izan genuen: kooperatibak, proiektu kulturalak, udalak, instituzio probintzialak, eragile sozialak… Horri esker ulertu ahal izan nuen zergatik eutsi dioten mundu injustu honetako uharte batean inor bazterrean uzten ez duen errepublikari. Inperioek txirotutako herria eta gaur egun ekonomikoki Estatu Batuen blokeoak jota egonda ere, bertako jendeak argi du zailtasunei kolektiboki aurre egin behar dietela; bere memoria historikoaren jabe delako eta sekula ikusi gabeko kultura eta jakintza politikoa dutelako. Jendearen baloreak dira Kubako kapitalik handiena eta horrek egiten du denak aurrera egitea.

Kubaren inguruko zalantza askorekin joan nintzen eta oso gutxirekin bueltatu. Orain, ordea, zalantzak gurean ditut jarrita, ezberdintasunak gora doazen Euskal Herrian iraultzen beharrean gaude eta. Gora Herria! Garaipenera arte beti!

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

NACATAMAL

Irail honetan Ramon y Cajal kaleko 30. zenbakian dagoen El Pinolero tarbenara gerturatu gara berriz ere. Nikaraguako janari eta giroa izaten dute bertan, eta oraingoan Nacatamalak zer diren eta nola egiten diren irakatsi digute.

Zailtasun maila: handia

Egiteko denbora: : 4 ordu baino gehiago

Prezioa: 5 euro

Berezitasuna: Nikaraguako jaki tipikoa da. Kafearekin eta ogi zati batekin jan daiteke.

Kontu batzuk

Nikaraguako janari eta edariak izaten dituzte egunero El Pinolero tabernan prest: piper-opilak edo entxiladak, takoak, patata barrubeteak… Hamaika plater tipiko eskaintzen dituzte, bazkaltzeko, afaltzeko zein noiznahi jateko. Adrian jabeak giro latino eta atsegina izaten dela kontatu digu, eta lokala intsonorizatuta dagoenez, arratsalde eta gauetan musika entzuteko, dantzatzeko zein abesteko aukera egoten dela.

Richar Vasquez, Mariza, Alexandra, Geyli, Consuelo, Adrian

PiíNOLerO

EI PINOLERO TABERNA
Ramon y Cajal, 30 - Deustu

Ordutegia
Egunero 13:00etatik 02:00ak arte

Facebook: El Pinolero Nicaragua Deusto
Tel.: 946126947

OSAGAIAK

Platano hostoa
Arto-irinez egindako orea
Patata
Azenarioa
Saiheskia
Arroza
Piperra
Tipula
Tomatea
Ongailua
Mendafina

Nola egin:

Lehendabizi platano hostoa ireki behar da. Barruan arto-irinez egindako orea sartu, patata, arroza eta saiheskiarekin, gordinik. Jarraian ongailua gehitzen zaio: piperra, tipula eta tomatea; eta azkenik mendafin hosto bat. Platano hostoa ondo itxi eta lau orduz egosi behar da, su motelean. Bero jan behar da, eta kafearekin eta ogi zati batekin lagundu daiteke.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00
BORDATXO
JATETXEA
San Pedro plazako frontoiaren atzean

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO
Prest?
AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

prest205.indd 29 24/09/10 13:27

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

GORKA ZOZAIA GARCIA

Erriberako zientzia irakaslea

LANBROAK EZKUTATZEN DUENA

Maite dut maite Laboaren kanta hura. Hasieran, gure bazter bukolikoei kantatzen zielakoan, edozein mendi-bueltaren soinu bandan nuen, lanbro artean sartzean kantatzeko. Denborarekin, baina, ohartu nintzen Mikelek bere baitan sortzen ziren bazter miresgarriak zituela maite, lanbro artean soilik ikusten ahal diren horiek. Izan ardotan igerian, ke artean hegan, elurretan eslalomean edota onddotan lau hankatan; kanpokoa estali, lanbrotu, eta barrukoa ikusteko bide ematen baitigute substantzia askok. Hala, uda hasieran gora, gaueko zeruko astroei begira, kanpora begira jartzea gomendatzen banuen, udazkenarekin, barrura, gure baitan pizten diren bazter miresgarriei begira jartzera gomendatzera nator. Eta horretarako, zer-eta behera begira jartzera; mongi garai betean gaude-eta!

Mongi edo sorgin zorrotzak (Psilocybe Semilanceata) 500 metrotik gorako landetan aurkitzen diren 1-6 cm-ko onddo txiki batzuk dira, kanpai itxurako txapelarekin, zuritik marroixkara jotzen dutenak. Propietate haluzinogenoak dituzte, zentzumenen asaldurak, denbora eta espazioaren pertzepzioaren aldaketa eta barregura eragiten dutelarik. Ez dira halaber oso toxikoak, bere eragina 3-6 orduz luzatzen da eta ez dute arriskurik gaindosi edo menpekotasun aldetik. Are, depresio eta antsietatearen aurka droga eraginkorra ei da eta Denberren (AEB) legeztatzeko bidea zabaldu berri diote. Dena dela, probatu aurretik ongi informatu Ailaket! bezalako zerbitzuen bidez.

Esan dezadan, amaitzeko, gomendio drogazale hau gastronomikoa ere izaten ahal dela, perretxiko garaia ere baita udazkena. Finean, izan daitezela onddoak aitzakia bat, lanbrotan edo eguzki argiz, mendi-buelta bat eman eta gure bazterrak ezagutzeko!

ENARE MUNIATEGI ETXABE

Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Manuel narruk atzo esan dit B

IRAILA

Bertso eskolarik gabe egon gara
udako bi hile luzetan,
orain Iraila heldu den arren
gu ez gaude ez penetan.
Doinu ederrak entzungo dira
Mullerreneko hormetan
buruhaustea hasi da baina
gogotsu gaude benetan!

Irailean sartu ta ikusten dugu
dena hain oker hain ilun,
baina Aferak hasiko da ta
oholtza gainean 5 lagun.
26an hasi ta alaituz
beste hainbeste ostegun
Ikasturte hau ondo joango da,
beraz, gozatu dezagun.

prest205.indd 30 24/09/19 13:27

SUSTATZAILEAK
ENTIDADES PROMOTORAS

elhuyar Zientzia · Bilbao

BABESLEAK
ENTIDADES PATROCINADORAS

FECYT

LAGUNTZAILEAK
ENTIDADES COLABORADORAS

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

BIZILABE BILBO

GAZTEENTZAKO IKERKETA-ZENTROA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA GUSTUKO DITUZU?

ETORRI BIZILABERA ESPERIMENTUAK EGITERA!

IZAN ASMATZAILE ETA IKERTZAILE!

DEUSTUKO UDALTEGIA (Bizilabe gunea) AGIRRE LEHENDAKARIA, 42. BILBO

ADINA

12 URTETIK AURRERA

NOIZ

ARRATSALDETAN, URTE OSOAN

NON

DEUSTUKO UDALTEGIAN.
AGIRRE LEHENDAKARIA, 42. BILBO

PREZIOA

15 € /HIRUHILEKO, ETA DESKONTUAK
FAMILIA UGARI ETA DSB-ENTZAT

ELKARREKIN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA IKERTUKO DITUGU:

TAILERRAK, ESPERIMENTUAK, PROIEKTUAK...

ETA, GUZTIA, ARLOKO IKERTZAILE PROFESIONALEKIN!

PROBATU NAHI DUZU?

ETORRI IRAILAREN 17an EDO 25ean, DOAKO TAILERRETARA.

BAIETZ GUSTATU!

EMAN IZENA!

www.bizilabe.elhuyar.eus

688 829 056

Zu Bilbon zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan

Tú estás en Bilbao, AEK también

Más de 100 euskaltegis en toda Euskal Herria

EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

BILBO aek euskaltegiak

LIZARDI AEK, (Zazpikaleak)
Perro kalea 1-1 · 944 168 200 · lizardi@aek.eus

INDAUTXU AEK
Urkijo 88 -1 · 944 413 474 · indautxu@aek.eus

URTATS AEK (Irala)
Kirikiño 22 behea · 944 211 304 · urtats@aek.eus

MATXINTXU AEK (Deustua)
Ramon y Cajal 8 behea · 944 752 233 · matxintxu@aek.eus

LARRAKO AEK (San Inazio)
Larrako Torre 24 · 600 585 522 · larrako@aek.eus

ZORROTZA AEK
Zalbidea 7 behea · 944 414 920 · zorrotza@aek.eus

SANTUTXUKO AEK
Arbidea 21 behea · 944 117 656 · santutxu@aek.eus

Eman izena
Matricúlate

Euskara-eskolak
Clases de euskera

Mintzapraktika

Barnetegiak

Autoikaskuntza
Autoaprendizaje

Normalizazio-planak
Planes de normalización

Online

Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones

aizu! aldizkaria

- **Dirulaguntzak** | Becas
- **HABEk homologatutako euskaltegiak**
  Euskaltegis homologados por HABE
- **Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak**
  Cursos de preparación de exámenes oficiales

korrika

www.aek.eus · 673 200 100 · 946 464 000